2019ko otsailean erregistratutako langabezia

2019ko otsailean zehar LANBIDEko bulegoetan 887 langabe gutxiago erregistratu dira. Horrek esan nahi du murrizketa balore erlatiboetan %0,7koa izan dela, eta 119.863 langabe daudela. Krisi eta krisi aurreko garaietako otsailetan, oro har, langabezia hazi egin zen; 2015, 2016 eta 2018 urteetan izan ezik, zeinetan murriztu egin zen. 2015 eta 2018 urteetan jaitsiera aurtengoa baino handiago izan zen, hala ere, azken 15 urteetako hirugarren murrizketa handiena izanik hilabetea positiboa izan dela esan daiteke.

Langabetuen hilabeteko saldoaren bilakaera



	ots-05	ots-06	ots-07	ots-08	ots-09	ots-10	ots-11	ots-12	ots-13	ots-14	ots-15	ots-16	ots-17	ots-18	ots-19
Series1	528	309	275	1.926	5.560	1.456	2.338	3.463	2.725	1.865	-127	-237	146	-109	-887

Urte arteko eboluzioari dagokionez, 7.372 pertsonetan murrizten da langabezia, aurreko hilabetean baino 204 gutxiago. 2018ko hilabeteen gehiengoan gertatutakoak jarraipena izan du; urte arteko langabeziaren jaitsiera erritmoa gutxitzea,hain zuzen ere .

Erregistratutako langabetuen urte arteko saldoaren bilakaera



2019ko otsailean erregistratutako langabezia

• SEXUA

Azken hilabetean langabezia gizonezkoen artean gehiago murriztu da (%1,2) emakumezkoen artean baino (-%0,4). Urte arteko saldoari dagokionez, gizonen artean %6,7 murriztu da, eta emakumeen artean, berriz, %5,1 soilik. Gaur egun langabeen %57,1 emakumeak dira. Krisia hasi zenean, aldiz, langabe kopurua berdintsua zen bi sexuetan, gizonezkoen artean langabezia orain baino handiagoa zen eta. Gizonezkoen artean krisiaren eragina handiago izan zen, baina talde hau errekuperazio ahalmen handiago erakusten ari da.

• ADINA

Azken hilabete honetan langabezia adin tarte guztietan murriztu da, 24 urte azpikoen tartean izan ezik (%4,8a hazi da). Urte arteko saldoan ere, 24 urte azpikoen artean bakarrik hazi da langabezia. Jaitsiera handiena 35 eta 44 urte arteko tartean izan da. Langabeen erdiak (%50,5) 44 urte baino gehiago ditu, %24,7ak ez ditu 35 urte baino gehiago eta beste %24,8a 35 eta 44 urteen artean kokatzen dira. Langabeak zenbat eta zaharragoak izan orduan eta zailtasun handiagoak dituzte laneratzeko. Ekonomia, egun, hobetzen ari bada ere, egiturazko langabezia handia utziko du krisiak langabe zaharrenen artean.

• JARDUERA EKONOMIKOA

Otsailean zehar eraikuntza sektoreko murrizketa nabarmentzen da, 207 langabetu gutxiago, %2,4ko murrizketa. Lehenengo sektorea eta industria sektoreak ere %0,9 eta %1,9 murriztu dira hurrenez hurren (698 eta 278 langabetu gutxiago). Lehen sektorean %1,3 hazi da langabezia (34 langabe gehiago). Aurretik enplegurik izan ez dutenen artean 262 langabe gehiago zenbatzen dira. Balore erlatiboetan eta aurreko urteko datuarekin alderatuz eraikuntza sektoreko murrizketa nabarmentzen da, %16,5eko jaitsiera, baita lehen sektorekoa (%6,2ko jaitsiera) ere.

Datuak zehatzago aztertuta, langabezia murrizketa handiena izan duena enpleguarekin erlazionatutako jarduerak izan da 165 langabetu gutxiagorekin, eta ondoren eraikuntzako jarduera espezializatuak (-132). Igoera nabarmenak izan dituzten jarduera batzuk hauek izan dira: egoitzetako laguntza (+98) eta posta zerbitzuak (+74).

• LANGABEZIAREN IRAUPENA

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 682 pertsonatan murriztu da eta epe laburrekoa 205 pertsonatan. Urte osoari begiratuz gero, ikusten da jaitsiera handiagoa izan dela epe luzeko langabeen artean (%10,4a, epe laburreko %0,7aren aldean). Ekonomiaren susperraldia, bada, aukerak eskaintzen ari da langabe kronifikatuenei.

• LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Otsailean langabezia hiru lurraldeetan murriztu da: Araban %1,9, Gipuzkoan %0,8 eta Bizkaian %0,4.

Urte arteko saldoari erreparatuz Bizkaiak erregistratu du eboluzio onena %6,7ko jaitsierarekin; Gipuzkoak jarraitzen dio %4,9ko jaitsierarekin eta azkenik Araban %4,1 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Gasteizen azken hilean 265 pertsonatan jaitsi da langabezia, Bilbon 209 pertsonatan eta Donostian 24 pertsonatan. Langabezia nabarmen hazi diren eskualdeak Durangaldea (+72) eta Deba Behea (+42) izan dira. Aldiz, eskualde hauetan langabezia jaitsi egin da: Urola Kosta (-92) eta Deba Goiena (-65).

2019ko otsailean erregistratutako langabezia

Otsaila honetan erregistratutako langabezia handiena duten udalerriak honako hauek izan dira; Oion (%21,33), Sestao (%19,02), Balmaseda (%16,85), Bastida (%16,81) eta Elantxobe (%16,45).

• LANGABEZIA-PRESTAZIOA

2019ko otsailean 37.089 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 286 langabe gutxiagok. Langabeen %30,9k du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. 22.217 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen %18,5 dira horiek. 14.872 langabek (%12,4), berriz, langabeziagatiko prestazioa jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (%34,5), Araban eta Bizkaian %30koa eta %29,6koa da, hurrenez hurren.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabeziagatiko estaldura-tasa 0.1 puntu murriztu da; aurreko urtearekin alderatuz, berriz, 1.9 hazi.

• IKASKETA MAILA

Langabeen %61,6ak (73.779 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 493 langabetu gutxiago erregistratu dira. Talde horretan %6,4 jaitsi da langabezia azken urtean.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen %8,8 dira. Talde horretan %0,3 jaitsi da langabezia azken hilean, eta azken urtean %4,8a.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 21.202 dira, hau da, langabeen %17,7. Talde hau otsailean zehar %0,1 murriztu da, eta azken urtean %3,4.

Azkenik, langabeen %11,9k (14.320 lagun), egin ditu unibertsitateko ikasketak. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean %2,4 murriztu da langabezia azken hilabetean eta %7 azken urtean, talde guztietan jaitsiera handiena hilabeteko eta urteko bilakaeran.

• JATORRIA

Langabeen %15,8 (18.980 lagun), atzerritarrak dira. Urtarrilarekin alderatuta, ikusten da langabezia murriztu egin dela atzerritarren artean %0,9, eta bertakoen artean %0,7.

Langabe atzerritarren %35a Afrika iparraldekoak dira, %21,4a Latinoamerikatik datoz, %19,8 Europako Esparru Ekonomikotik, %14,6a Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta %5,7, azkenik, Asiatik. Otsailean Afrika iparraldetik etorritako pertsonen artean murriztu da gehien langabezia (-%1,5); hazkunde handiena, aldiz, Saharaz hegoaldeko Afrikatik datozenen artean izan da (+%1,1).

• KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan 3.279 langabe gehiago daude urtarrilean baino (%0,1eko igoera). Horrek esan nahi du guztira 3.289.040 langabe daudela erregistratuta; EAEn, berriz, %0,73 murriztu da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetatik, Errioxak izan du soilik bilakaera hobeagoa; Nafarroan %0,77 hazi da, Kantabrian %0,53a eta Gaztela eta Leonen, aldiz, %0,17 murriztu da. Erkidego handienen artean Katalunian %0,44 murriztu da eta Madrilen %1,03 hazi da.

Urte arteko bilakaeran, langabezia gutxiago murriztu da Estatuan (-%5,2) EAEren aldean (-%5,8).

Lan-eskatzaile langabeak 2019ko otsailean

	ots-2019	urt-2019	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	**51.420**	**52.031**	**-611**	**-1,17**
EMAKUMEZKOAK	**68.443**	**68.719**	**-276**	**-0,40**
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	**8.221**	**7.843**	**378**	**4,82**
GIZONEZKOAK	**4.101**	**3.863**	**238**	**6,16**
EMAKUMEZKOAK	**4.120**	**3.980**	**12**	**3,52**
25-44 URTE:				
GUZTIRA	**51.107**	**51.946**	**-839**	**-1,62**
GIZONEZKOAK	**21.207**	**21.673**	**-466**	**-2,15**
EMAKUMEZKOAK	**29.900**	**30.273**	**-373**	**-1,23**
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	**60.535**	**60.961**	**-426**	**-0,70**
GIZONEZKOAK	**26.112**	**26.495**	**-383**	**-1,45**
EMAKUMEZKOAK	**34.423**	**34.466**	**-43**	**-0,12**
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	**2.715**	**2.681**	**34**	**1,27**
INDUSTRIA	**14.189**	**14.467**	**-278**	**-1,92**
ERAIKUNTZA	**8.439**	**8.646**	**-207**	**-2,39**
ZERBITZUAK	**79.920**	**80.618**	**-698**	**-0,87**
AURREKO ENPLEGURIK GABE	**14.600**	**14.338**	**262**	**1,83**
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	**19.672**	**20.052**	**-380**	**-1,90**
BIZKAIA	**68.223**	**68.472**	**-239**	**-0,35**
GIPUZKOA	**31.958**	**32.226**	**-268**	**-0,83**
EAE	**119.863**	**120.750**	**-887**	**-0,73**

	Langa-betuak	Erregistratu-tako langabe-zia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	4.168	11,2%	-36	-0,86	-144	-3,34
Oarsoaldea	3.690	10,3%	-37	-0,99	-149	-3,88
Donostia-S.Seb.	7.936	9,0%	-24	-0,30	-530	-6,26
Donost.Mendebaldea	3.060	8,5%	-28	-0,91	-212	-6,48
Tolosaldea	2.043	8,8%	6	0,29	-203	-9,04
Urola Erdia	1.325	8,9%	-8	-0,60	-69	-4,95
Goiherri	1.623	7,8%	-14	-0,86	-11	-0,67
Deba Garaia	2.494	8,4%	-65	-2,54	-29	-1,15
Deba Behera	2.879	11,0%	42	1,48	-111	-3,71
Urola Garaia	1.098	9,2%	-12	-1,08	-63	-5,43
Urola Kosta	1.642	7,4%	-92	-5,31	-123	-6,97
GIPUZKOA	31.958	9,2%	-268	-0,83	-1.644	-4,89
Vitoria-Gasteiz	15.359	12,5%	-265	-1,70	-722	-4,49
Aialako Ibarra	2.330	12,4%	-25	-1,06	-72	-3,00
Arabar Errioxa	728	13,7%	-10	-1,36	-17	-2,28
Arabako lautada	626	8,5%	-64	-9,28	-88	-12,32
Gorbeia inguruak	288	6,2%	-11	-3,68	37	14,74
Arabako Ibarrak	402	8,3%	-5	-1,23	10	2,55
Arabako Mendialdea	93	6,3%	2	2,20	-16	-14,68
ARABA	19.672	12,0%	-380	-1,90	-833	-4,06
Gobela	4.856	9,3%	-46	-0,94	-406	-7,72
Txorierri	2.307	10,1%	17	0,74	-161	-6,52
Uribealdea	3.065	9,4%	41	1,36	-148	-4,61
Durangaldea	3.375	9,0%	72	2,18	-53	-1,55
Busturialdea	2.283	10,6%	-59	-2,52	-131	-5,43
Lea-Artibai	1.073	9,0%	-31	-2,81	51	4,99
Enkarterriak	2.167	13,9%	6	0,28	-166	-7,12
Arratia-Zornotza	1.499	8,7%	1	0,07	-41	-2,66
Arratia-Nerbioi	1.365	10,5%	-10	-0,73	-87	-5,99
Bilbo	23.395	14,0%	-209	-0,89	-1.779	-7,07
Ezkerraldea	17.963	14,4%	-17	-0,09	-1.600	-8,18
Ibaizabal	4.729	11,8%	-6	-0,13	-340	-6,71
BIZKAIA	68.233	12,2%	-239	-0,35	-4.895	-6,69
EAE	119.863	11,2%	-887	-0,73	-7.373	-5,79

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.